

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

695/2024 Foru Agindua, abenduaren 23koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa)

Abenduaren 19ko 593/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaizen Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion prozesu bereziak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Abenduaren 20ko 594/2022 Foru Aginduaren bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezien oinarri espezifikoak onetsi ziren.

Hautaketa prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea).

Diputatu Nagusiaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Horrez gain, ekainaren 30eko 150/2023 Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	KODEA	LANPOSTUA
Miguel Corral Legazpia	1200.001	Mendi Zerbitzuko Teknikaria
Gorka Lago Parra	1201.003	Biodibertsitateko Teknikaria
Ekhi Mandiola Izaguirre	1200.010	Mendi Zerbitzuko Teknikaria
Xabier Albizu Zabala	1201.002	Biodibertsitateko Teknikaria

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2025ko urtarrilaen 7an jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua-rekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 23a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR